



BARREN

TOKIKOM

# Mendarok badu gimnasioa





**Audifono digital berrienak.**  
**Ez da soinu kalitatea bakarrik, bizi-kalitatea ere bada.**

## URRIAK 3 ARTE 5 ABANTAILA:



- ➔ Audifonoak hilabetez doan probatzeko aukera
- ➔ **2** urte arteko finantziazioa
- ➔ **3** urtetarako pilak doan
- ➔ **4** urteko bermea
- ➔ **5** urtetarako galera eta lapurreta seguroa

**TXANDA HARTU KONPROMISORIK GABE!**

## 2020/21 Matrikula epea zabalik

### IKASTAROAK

Aurrez aurrekoak: 2, 3 edo 4 egun astean, mailaren arabera.

Autoikaskuntza Internet bidez.

Euskara ulertu eta euskaraz bizitzeko ikastaroak.

Mailak: A1, A2, B1, B2, C1, C2.

Azterketa prestatzeko ikastaroak:  
HABEren titulu ofizialak, Administrazioa, Osakidetza.

16 urtetik gorakoentzat

Matrikulaldia: irailaren 25era arte

Langabetu, ikasle eta gurasoek **MATRIKULA ERDIA**  
Ikastaro amaieran **BEKAK** denentzat. (Baldintzak betez gero)

Informa zaitetz Udal Euskaltegian!

### MATRIKULA ORDUTEGIA

Elgoibar: Aita Agirre Kulturgunea 3, 3.a (eraikin berria)

09:00-13:00 / 15:30-19:30

943 742 731

(COVID-19aren eraginez, moldaketak gerta litezke.)



UDAL  
EUSKALTEGIAK



Euskaraz hasi + Euskaraz hazi = Euskaraz bizi.

## Guk eman dugu izena!

### AGURTZANE ETXANIZ, Debemen



#### ◆ Zergatik erabaki du Debemenek Euskaraldian parte hartzea?

Debemenen euskaraz bizi dugu egunerokoa, eta euskararen erabilera indartzeko aukera egokia iruditu zaigu. Euskararen erabilera normalizatzeko, norbanakoei ez ezik

erakundeei ere hizkuntza hautua egitea dagokie. Ekimen kolektiboa izanik, Euskaraldian parte hartzeko proposamena gogo handiz hartu genuen. Euskararen erabileraren aldeko sare handi baten parte sentitzeak bere biziko garrantzia dauka guretzat. Gu zortzi langile gara. Hiruk bulegoetan lan egiten dugu, eta gainerakoek kanpoko lana egiten dute. Horrez gain, zuzendaritza batzordea 9 lagunek osatzen dute, eta horiek ere ekitaldian inplikatzeko da gure asmoa.

#### ◆ Zein hizkuntzatan hitz egiten duzue Debemenen?

Elkarte bera eskualdeko udal eta lehen sektoreko elkarteek osatzen dute, eta zuzendaritza batzordeko zein batzar nagusietako bilerak guztiak euskaraz egiten dira. Te-

### HENAR CELAYA, MGS ASEGURUAK



#### ◆ Zergatik eman du izena MGS aseguru etxeak Euskaraldian?

Nik neuretik erantzungo dut. Elgoibarraren daukat bulegoa eta hemengo hizkuntza euskara da. Gure hizkuntza da euskara eta bultzada behar duelako, oraingo hone-

tan ere Euskaraldian parte hartzea pentsatu dut. Bezeroekin euskaraz lan egiteko gaitasuna daukat eta ondo dago bezeroek jakitea euskaraz badakidala.

#### ◆ Zein hizkuntzatan funtzionatzen du aseguruaren sektoreak?

Gaur egun erabiltzen ditugun informatika-aplikazioak ez daude euskarara itzulita eta bezeroari ematen diogun aurrekontu proposamena ere ez. Guk erabiltzen dugun dokumentazio gehiena gaztelaniazkoa da. Euskararen normalizaziorako lan handia dago egiteko oraindik sektore honetan, eta gutxienez, nire esku dagoena egiteko konpro-

### “Bi arigune sortuko ditugu: bata, gure barneko arigunea eta bestea, kanpo arigunea”

lefono bidezko zein bulegoko harrera euskaraz egiten dugu beti, eta besterik eskatzen ez badigute, idatzizko komunikazioa ere euskaraz egiten dugu. Bezero gehienekin euskaraz egiten dugu, eta langileen artean euskara erabat menperatzen ez duen langile bat dagoen arren, euskara da gure arteko harremanetan hizkuntza nagusia. Telefonoz deitzen dugunean beti eskatzen dugu euskaraz dakien norbaitekin hitz egitea, baina zoritxarrez, toki askotan ez da horretarako aukerarik egoten.

#### ◆ Zuen bulegoan ariguneak sortzeko aukerarik ikusten duzu?

Bai, bi arigune sortuko ditugu: bata, gure barneko arigunea eta bestea, kanpo arigunea. Azken hau kanpotik datorrenari gurekin euskaraz egin dezakeela adierazteko izango da.

#### ◆ Euskaraldia bezalako egitasmoak garrantzitsuak iruditzen zaizkizu?

Bai, gizarteko esparru desberdinetan eragina izaten duten egitasmoak aberatsak dira eta ziur nago jarraitu beharreko bidea dela.

### “Euskararen normalizaziorako lan handia dago egiteko oraindik aseguruaren sektorean”

misoa hartuko dut.

#### ◆ Zuen bulegoan zein hizkuntzatan egiten duzue lan?

Bakarrik nago bulegoan. Dena dela, lankideekin zein bezeroekin izaten ditudan harremanak beraien hizkuntzaren arabera izaten dira. Hori bai, telefonoz lehen hitza euskaraz egiten dut beti.

#### ◆ Zure bulegoan ariguneak sortzeko aukerarik ikusten duzu?

Bai. Kanpo arigunea sortuko dut, bezeroekin euskaraz hitz egiteko gaitasuna dudalako. Bezeroek jakin egin behar dute bulegoan nirekin euskaraz hitz egiteko aukera dutela.

#### ◆ Euskaraldia bezalako egitasmoak garrantzitsuak iruditzen zaizkizu?

Bai, gure hizkuntza bultzatzeko ekintza guztiak dira garrantzitsuak eta beharrezkoak. Elgoibarko entitatean Euskaraldian izena ematera animatuko nituzke; merezi duela iruditzen zait.

Zuen entitateak ere Euskaraldian parte hartu nahi badu:

DEITU: 625 709 365 - IDATZI: elgoibar@euskaraldia.eus

Irailan amaituko da entitateek Euskaraldian izena emateko epea.







## Hiltzearen beldurrez, bizitzeari utzi

retan aurki dezakegunaren sentipena sorrarazi digu eta denbora luzeegian mantentzen ari da alerta egoera finkatuz gure egunerokotasunean. Tentsio emozional honek gain-nekea dakar, geure burua babestea besterik ez izatea buruan, egoeraren analisi sosegatu bat egitea erabat ezinduz. Honela, garai hauetan ohiko bihurtu daitezke lo egiteko arazoak eta antsietatea, egunerokotasunean pentsatu gabe burutu ohi genituen zenbait aktibitateri aurre egitean.

*“Behatzailea izan naiz beti eta inguruan sumatzen dut osasuntsuen daudenek dutela beldur handiena”*

Esan ohi da hilgarriak garela onartu arte ez dugula bizitza estimatzen eta aprobetxatzen; orainari heltzen eta momentu txikiez gozatzen ikasten, hemen eta orain egoten, dugunaz disfrutatzen.

Ni behatzailea izan naiz beti eta inguruan sumatzen dut osasuntsuen daudenak dutela beldur handiena; bizitzan kolpatuak izan garenak onartzen baitugu bizitzak astindu gaitzakeela gure tenplea jokoan jarriz, baina horrek ez digula bizitza galaraziko. Bizitza bizirautearen oso bestelakoa da; momentua bizitza erabakitzen dugunean bizitzaren argi eta ilunak onartuz, maite dugun horretan aritzea eta barrua elikatzen digun horretan ekitea, eta goxatzen gaituztenekin egotea erabakitzen dugu.

Iluntasunari neurria jartzeko ordua da; argi dago ez dugula hil ezta gaixotu nahi, baina nola nahi dugu bizi?

oso kezkatuta nago bizi dugun egoerarekin, batez ere denbora gehiegian mantentzen ari delako eta noiz artekoa izango den aurreikusterik ez dagoelako. Birusa edo gaixotasunagatik kezkatuta nagoela pentsatuko zenuten lehen esaldia irakurtzean, baina nire kezka bestelakoa da. Neure osasun arloa beste bat baita, alde batera utzi ezin duguna.

Birusarekiko gain-informazioak heriotza edozein objektu, kontaktu eta egoe-



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euskarazko Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR

943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitakoen erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalaa Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIA** Amaia Arrizabalaga **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldeggi, Jone Olaizola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

BARRENEK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NANa eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► URRIAREN 3AN MORKAIKORA!

Elgoibarko Sarek dei egiten die elgoibartarrei urriaren 3rako antolatutako den Morkaikoko iogoeran parte hartzera. Presoen egoera konpontzea premiazko kontua da. Preso askok urte asko darabizate salbuespenezko politika jasaten; preso larriak, adineko presoak, zigorraren 3/4 beteta izan arren espetxean daudenak, lehen graduan... Une honetan, Covidaren kontua dela-eta, are larriagoa bihurtu da haien egoera. Euskal gizartean sortu da preso eta iheslari politikoen arazoari konponbidea topatzeko borondatea. Horrela adierazi dute alderdi politiko gehienek, sindikatu gehienek, instituzioek... eta euskal gizar-

tea berak ere horrela adierazi du mobilizazioen bidez. Hau da momentua mobilizazio horiek areagotzeko. Momentu honetan errazago izan daiteke hori lortzea, besteak beste, gobernuan dauden alderdiak horren alde agertu direlako. Testuinguru horretan urriaren 3rako Euskal Herri guztian 650 menditara igotzeko deia eginda dago *Izan Bidea* egitasmoaren barruan. Elgoibarren Morkaikora igoko gara. Goizeko 9:30ean Kalegoen Plazan elkartuko gara ibilbidea herritik oinez egin nahi dugunok. 10:45ean Aiastian elkartuko gara autoz bertaraino joaten direnekin, eta handik abiatuko gara Morkaikorantz, talde txikitik eta umore onean. Morkaikon ar-

gazkia atera eta itzuliko gara. Giza eskubideak, konponbidea eta bakearen alde dauden guztiak gonbidatuta daude. Era berean, gogorazi nahi dugu *Izan bidea* aplikazioa jaitea oso erreza dea. Behin aplikazioa jaitsita dagoela, guk markatuko dugu noiz hasiko garen ibiltzen eta noiz bukatuko dugun. Aplikazioak automatikoki jasoko du guk egindako ibilbidea eta gehitu egingo dio ordurarte dagoenari. 3.127.326 kilometro egitea da helburua, euskal preso eta iheslarien eskubideen alde.

**Sare Elgoibar**



## Pedro Astigarraga Muguerza

"Amesti"

2020ko irailaren 14an hil zen, 76 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



II. URTEURRENA

## Julian Juaristi Soraluze

"Artaso"

2018ko irailaren 19an hil zen, 66 urte zituela.

**Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko  
gure bihotz barrenean  
eramango zaitugu betiko.**



## Hezkuntzako grebak apenas izan zuten eraginik Elgoibarren, baina bai Mendaron

ELA, LAB, Steilas, CCOO eta UGT sindikatuek grebara deitu zuten martitzenerako Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako hezkuntzan, itzulera "segurua eta adostua" eskatzeko, eta deialdiarekin bat egin zuten hezkuntza arloko azpikontratek ere; hau da, garbitzaileek, jantokietako langileek eta baita garraioetako arduradunek ere. Elgoibarko ikastetxeetan, baina, ez zuten jarraipen handirik eduki greba deialdiak. Elgoibar Ikastolan, esaterako, ez zuten grebarik egin, eta Elgoibarko Haurreskolan ere grebarik ez egitea erabaki zuten beharginek. Herri Eskolan, irakasleen %32k egin zuten greba eta sukaldeko langileen %25ek. Elgoibar BH Institutuan martitzenean bertan zuten kurtso hasiera DBH3 eta DBH4ko ikasleek, eta zuzendaritzatik esandakoaren arabera, normaltasun osoz ekin zioten ikasturteari. Irakasleen %10ek egin zuten greba Institutuan, baina eguneko funtzionamenduan ez zuela eragin esan zuten zuzendariak. Meka Lanbide Eskolan irakasleen %12,5ek egin zuten greba (70 ikasle inguru dira). Ikastetxeko arduradunek jakinarazi zutenenez, lehen orduan klaseren bat eten behar izan zuten arren, harrezgero normaltasu-



nez eman zituzten eskolak. Gauza bera adierazi zuten IMHn ere: 62 irakasletatik 10ek egin zuten bat grebarekin, baina normaltasunez jardun ziren. Mendaron gehiago igarri zen greba deialdia Ikastolako klastrokieen erdiek baino gehiagok erabaki zutelako greba egitea. Hori dela eta, klase arruntik ez zen egon, eta ikasleei eskolan ematen zaizkien zerbitzuak mantendu arren, aurrera eramateko zailtasunak izan zituzten. Mendaroko Haurreskolan, baina, ez zuten grebarik egin.

### Elgoibarko udalerrri osorako autobus zerbitzua eskatu du EH Bilduk



Elgoibarko udalerrri osorako autobus zerbitzua aztertzeko mozioa aurkeztu du Elgoibarko EH Bilduk Udalean. Urazandin igogailu publikoak ipintzeko lanak amaitu bitartean egongo da martxan Urazandi eta Erretsundiko bizilagunentzako autobus-zerbitzua, baina EH Bildutik esan dute, zerbitzu horri eutsi eta garraio-zerbitzu hori herri osora zabaltzea aztertu beharko litzatekeela. Halaber, Urazandin eta Erretsundin ematen ari diren zerbitzua mantentzea eta hobetzea komeni dela uste dute, baita asteburuetan ere. Autobusak Aita Agirre plazan zein Herri Eskolan gelditzea proposatu dute, eta horrez gainera, geltokietan informazio panel egokiak jarri eta ordutegia egun osora zabaldu behar dela adierazi dute. Hurrengo osoko bilkuran eztabaidatuko dute mozioa.

### 'Bainuetxea' antzezlanaren aurkeztuko du Taupadak eguenean

Taupada antzerki taldeak *Bainuetxea* antzerkia taularatuko du irailaren 24an Aita Agirre kulturgunean. Sarrera doan izango da, eta nahi duenak mahaia erreserbatu dezake emanaldia ikusteko. Interesatuak telefono honetara deitu dezakete: 681 397 579 (Noel Isasi). Antzerkia 20:30ean hasiko da.

### Euskaltegian izena emateko aukera, Mendaron

Mendaroko Udalak euskara eskolak herrian bertan emateko baliabideak jarriko ditu, UEMArekin elkarlanean, taldea sortzeko gutxieneko kopurua lortzen bada. Pandemia egoera honetan, 5 lagunekoa izango da gutxieneko kopuru hori. Behe, erdi eta goi mailako euskara ikastaroen eskaintza dago. Matrikulazio epea zabalik dago irailak 25era arte. Informazio gehiagorako: [kultura@mendaro.eus](mailto:kultura@mendaro.eus) edo 685 72 00 10 telefonora.



## 2021erako udal zergak eta tasak izoztea proposatuko du EAJk osoko bilkuran

Elgoibarko EAJk 2021erako udal zergak eta tasak izoztea proposatuko du irailaren 30eko osoko bilkuran: "Covid-19ak sortutako osasun- eta ekonomia-krisiak zailtasunak eragin badizkigu ere, elgoibartarrak beren zerga-be-tebeharrak era eredugarrian betetzen ari dira, eta uste dugu presio fiskal hori lasaitzeko unea dela, elgoibartarrei karga gehiago ez gehitzeko, harik eta egoera normalizatu eta herritarrek erosteko ahalmena berreskuratzen duten arte", adierazi dute EAJko arduradunek. Neurri honekin elgoibartarrei eta tokiko enpresa-sareari laguntzen jarraitu nahi dute, baina, era berean, aitortu dute zergei eusteko erabakiak ahalegin handia ekarriko diola Udalari.

EAJk esan du osasunaren eta ekonomiaren alde lan egiteko unea dela, "okerren dauden pertsonen alde egiteko unea". Hori dela-eta, elkarlanerako borondatea erakutsi dute, eta alderdi politiko guztiekin negoziatzeko prest agertu dira "salbuespenik gabe". "Kontua batzea da, ez oztopatzea". Era berean, azaldu dute azken legegintzaldietan egin duten "kudeaketa arduratsu eta eraginkorrari esker", Udalaren finantza-egoera osasuntsua dela, eta orain, krisi-egoeran, gerrikoa estutu ahal izango dutela elgoi-



Ategin Uzuriaga eta Maialen Gurrutxaga

bartarren interesen alde: "Beti bezala egingo dugu, gastuaren eta diru-sarreraren kontrol zehatza eginez; izan ere, baliabide publikoak, batzueri hala iruditu ez arren, mugatuak dira, eta zorrozta-sun osoz kudeatu behar dira, are gehiago, krisi-garaian".

### Edukiontzi marroia ez dela egoki erabiltzen ondorioztatu dute Debabarrenean egindako ikerketa batean

Debabarrenako Mankomunitateak Deba, Mutriku, Eibar, Elgoibar eta Ermuko edukiontzi marroietan botatako hondakinen jarraipena egin du hamar astez, herritarren ohiturak aztertzeko. Eta ikerketa horretatik ondorioztatu dute edukiontzi marroira bota beharko ez litzatekeen zaborra botatzen dela behar baino gehiagotan. Aztertu zituzten edukiontzi marroietan hondakin ez-organikoen 100 poltsa baino gehiago bildu zituzten, eta identifikatu zituzten "puntu beltzak". Mutriku hamabost puntu beltz identifikatu dituzte, Deban eta Eibarren hamahiruna, hiru Elgoibarren eta bi Ermuan. "Udalerrri batzuetan, hondakinen %12 bota da leku desegokira", esan dute arduradunek. Mankomunitatea aukerak aztertzen ari da edukiontzi marroira oker botatzen den zabor-kopurua gutxitzeko. Hala ere, azpimarratu dute "oso nabarmena" izan dela frakzio organikoaren gaikako bilketan egin den aurrerapena, edukiontzi marroia mankomunitate osoan martxan jarri zenetik. "2019an 5.143 tona biohondakin bildu ziren gaika, eta ondoren Epelek Bergaran duen instalazioan konposta egiteko erabili ziren". Helburua da 2030erako eskualdeko gaikako bilketaren % 70 lortzea.



### Gipuzkoako batzarkide kargua hartu du Jon Peli Uriguenek

Gipuzkoako batzarkide kargua hartu du EH Bilduko Jon Peli Uriguenek, eta horrenbestez, Elgoibarko zinegotzi eta batzarkide karguak uz-tartuko ditu aurrerantzean. Aitor Aranzabal Altuna ordezkatzu arituko da Uriguen Gipuzkoako Batzar Nagusietako EH Bilduren taldean. "Ilusioa-ekin eta erantzukizunarekin" hartu du kargu berria Uriguenek

## Irailaren 22an iritsiko da Laburbira Elgoibarrera

Elgoibarko Udalak eta Ongarri zine elkarteak antolatutako Iñaki Agirre Zinemaldiaren baitan Laburbirako hainbat film ikusteko aukera egongo da datorren martitzenean Herriko Antzokian. Euskaltzaleen Topaguneak urteak daramatza Laburbira, euskarazko film laburren zirkuitu ibiltaria, eskaintzen, euskarazko sortzaileen lana ezagutzera eman eta euskaraz ekoizten jarraitu dezaten aukera zabaltzeko. 2020an 27 lan jaso dituzte, eta horietatik bederatziz izan dira aukeratuak. 21:30ean hasiko da emanaldia, eta sarrera doan izango da:



- *Gau beltza* (Euskaltzaleen Topagunea)
- *Tigre bat* (Amaia San Sebastian)
- *Mamarro* (Ibon Iza Totorika)
- *Urak dakarrena* (Marilyn Taldea)
- *Pil pil* (Kristina Zorita)
- *Kateak* (Yolanda Mazkieran)
- *Anti* (Josu Martinez)

### Mausitxak hirugarren egin du Ordiziako Gazta Lehiaketan

Ardi Latxaren edo Karrantzakoaren esne gordinez egindako Gazten XLVII. lehiaketa izan da aurten pandemiaren eraginez Ordizian Euskal Jaietan antolatu duten ekintza bakarra. Joan zen barikuan izan zen, guztira 43 gaztagile lehiatu ziren, eta Elgoibarko Mausitxa baserriko gaztak hirugarren egin zuen. Arabako gaztek lortu zituzten aurreneko postuak: Larreako gaztagile Patxi Lopez de Uralde Fernandezek aurkeztutako gaztari eman diote lehen saria, eta Araiako Unai Lekuona Ruiz de Luzuriagak eskuratu du bigarrena. Txapelketa irabazi zuen gazta erdiagatik 9.200 euro ordaindu ditu Tecnomotoko Alberto Fernandezek. Ateak itxita, segurtasun neurriak hartuta eta publikorik gabe ospatu zuten lehiaketa Ordiziako Beti Alai pilotalekuan.

### Hamar leku geratzen dira urriaren 3ko 'Euskara ala Ezkara' jardunaldirako

Urriaren 3rako ari dira antolatzen Euskara ala Ezkara jardunaldia Elgoibarko Izarra eta Elgoibarko Udala, Dijitalidadea enpresarekin lankidetzan, eta antolatzailleek esan dutenez, hamar bat leku bakarrik geratzen dira libre. *Euskara ala Ezkara Elgoibarren?* izango da aurtengo gaia, Elgoibarko euskalgintzaren eta kulturagintzaren diagnosis bateratua eta adostua egitea da helburua. Interesatuak irailaren 25era arte dute izena emateko aukera. Informazio gehiagorako eta izena emateko: [elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus](mailto:elgoibarkoizarra@elgoibarkoizarra.eus) / 943 741 626 edo [euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus) / 943 744 366



#### EGITARAUA:

- 9:30 -10:00: Ongi etorria
- 10:00 -10:30: Zer dago egin nahi dugunaren oinarrian? Marko teorikoa. Gotzon Barandiaran.
- 10:30 -11:00: Egin al da antzerakorik beste inon? Azpeitiko esperientzia.
- 11:00 -11:30: Zer kontatu didazue elgoibartarrek? Koadernoan jasotakoa. Gorka Arrese.
- 11:30 -12:00: Atsedena, kafea eta pastak
- 12:00 -14:15: Tailerra 1: ondorioen gaineko gogoeta.
- 14:15 -15:45: Bazkaria
- 15:45 -17:45: Tailerra 2. Kulturaren Bilgunea: nahi edo behar dugu? Zertarako?
- 17:45 -18:00: Gaurkoz nahikoa!
- 18:00 -19:00: Kontzertua: Jon Gurrutxaga.





Zuen kexak, galderak edo txalok bidaltzeko: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) - 943 744 112



**E**kaitz baten ondorioz zuhaitz bat erori zen ibaira eta han jarraitzen du: "Orain dela pare bat hilabete izan zen ekaitz baten eraginez, zuhaitz bat Deba ibaira erori zen Santa Ana kale inguruan, Sigmako aparkaleku estaliaren aurrean, eta oraindik bertan jarraitzen du. Une honetan ibaiak ez dauka ur askorik, baina euriteak hasten direnean ibaiak indarra hartuko du eta zuhaitz horrek arazoak sor ditzake, zubiperen baten kateatuta geratu daitekeelako. Zuhaitz hori uretatik atera behar dela iruditzen zaigu".



**S**an Roke ermita ingurua zikin-zikin egoten da sarri: "Ez dago eskubiderik. San Roke ermitako irudia da hau, baina herriko gune asko egoten dira horrela. Jendea herriko gune ezkutuetan biltzen da botila festa egiteko, eta gero, dena zikinkeriaz beteta lagatzen dute. Zikintzen duenak, garbitu dezala, mesedez. Gainerako herritarrentzako errespetua ezinbestekoa da elkarbizitzarako, bestela jai daukagu".



**M**aalako errotondatik zubira hartzerako eremuan dagoen estolda ez dago ondo: "Maalako errotonda inguruan, estolda dagoen eremuan, zulo moduko bat sortua dago eta horren eraginez, bertatik kotxearekin pasatzean gupila zuloan sartzen da. Maiz zuloa saihesteko beste noranzko erreilean pixkat sartzen gara gidari asko, horrek dakarren arriskuarekin. Konpondu egin behar dela iruditzen zait".



## Maria Luisa Müller Acorda

2020ko irailaren 9an hil zen, 56 urte zituela. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak, bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.

*Maitasunez, beti gure bihotzean.*





Jon Peñagarikano  
eta Yuri Egaña

## “Immunitate-sistema indartzeko eta birusari aurre egiteko ere ona da kirola”

**Jon Peñagarikano eta Yuri Egaña** MENDAROKO GIMNASIOKO ARDURADUNAK

Irailaren 1ean zabaldu zuten Mendaron Goñati Udal gimnasioa. Kanpo-enpresa batek kudeatuko du gimnasioa, Debako Abilion enpresak, eta enpresako gerentearekin, Jon Peñagarikanorekin, eta Mendaroko gimnasioaren ardura-zuzena izango duen profesionalarekin batu gara, Yuri Egañarekin. Gimnasioan bi monitore izango dira txandaka, Yuri bera eta Leire Olazabal, eta astelehenetik zapatuta zabalduko dute.

- AINARA ARGOITIA -

♦ **Aspaldiko proiektua gauzatu da, baina garai berezian dator. Nola erantzun dute herritarrek lehenengo egunotan?**

**Yuri:** Egoera berezian hasi dugu ibilbidea, baina jendeak ilusioz hartu du proiektua eta erantzuna oso ona izan da. 14 urtez gorakoentzako eskaintza sortzea izan dugu hasieratik helburu eta horretarako, saio bereziak sortu ditugu gazteenzat, eta beste saio batzuk, adinekoentzat. Adinean goragokoekin bi talde sortu ditugu dagoeneko. Gazteak oporretan daude iraila erdi aldera arte, eta uste dugu egunerokoa antolatutakoan hasiko direla etortzen. Saio gidatu bakoitzean gehenez sei-zazpi lagun hartu ditzakegu

hemen, espazio eta aforo kontuengatik. Gimnasioak honako ordutegia izango du: astebarruan 9:00etatik 12:00etara goizez, eta 17:00etatik 21:00etara arratsaldez, eta zapatuetan, goizez: 9:00etatik 12:00etara.

♦ **Zeuk esan duzu. Egoera berezia bizi dugu. Kirola espazio itxian egiten da hemen. Kezkarik agertu du jendeak?**

**Jon:** Ez dakit kezka duten ala ez, baina nik esango niekena da kirola osasuna dela, gure immunitate-sistema indartzen duela eta birus honi eta gainerako beste gaitzei aurre egiteko ere garrantzitsua dela immunitate-sistema sendo izatea. Ezin dugula geldi egon alegia, eta nahiz eta orain traba gehiago izan, aurrera egin

behar dugula.

♦ **Hogei bat makina zenbatu ditugu. Zertarako makinak dira?**

**Jon:** Batetik, indar makinak dauzkagu eta bestetik, kardioa lantzeko makinak. Bigarrenen artean, spinningeko bizikletak dauzkagu. Spinning klase birtualak eskainiko ditugu, telebista bidezko klaseak dira. Kataluniako enpresa batek sortu ditu klaseak, euskaraz eta gaztelaniaz, eta bizikleta guztiak sistema horri konektatuta daude elektrikoki eta bestela, nork bere aurikularak jantzita irakaslearen argibideak jarraitzeko. Spinning birtualerako, tonifikazio zirkuituetarako, abdominal expresak egiteko eta gainerako saio gidatuetarako ordua eskatu behar da.



*“14 urtez  
gorakoentzako  
eskaintza sortzea izan  
dugu hasieratik  
helburu eta horretarako  
saio ezberdinak  
prestatu ditugu”*

**Yuri:** Gimnasio txikia da hau eta horrek aukera ematen digu hona datorren jendearen gainean egoteko. Gimnasio publiko askotan ez dago horretarako aukerarik, eta nik esango nuke hori dela guk eskaintzen dugun balio erantsia. Bi monitore izango gara hemen. Txandaka lan egingo dugu eta jendeari laguntzeko eta aholkuak emateko gertu egongo gara uneoro. Oraintxe, adinekoen saioa hasi aurretikoan, etorri da 60 bat urteko gizon bat, zeri ekin ez zekiela. Ikusi du hemen dagoena, gomendio batzuk eman dizkiogu eta adinekoen talderako eman du izena.

♦ **Gimnasioaren erabilzaile izateko bazkide egin behar al da?**

**Jon:** Bai. Bazkide-tza-sistema bat daukagu. Behin bazkide denak edozer gauza egiteko aukera izango du hemen. Urteko bazkide-tza egin nahi duenak, hilean 30 euro ordaindu behar ditu, eta horren barruan, doan jasoko du lehenengo entrenamendu plangintza bat. Deskontuak ere baditugu, adinaren arabera aplikatze-koak. 14-16 urte artekoak, esaterako, hilean 16 euro ordaindu beharko dituzte, baina ordutegi mugatua izango dute: 17:00etatik 18:00etara. Urteko bazkide-tza egiten duten 17-22 urte artekoak eta 65 urtez gorakoak bost euroko deskontua izango dute hileroko kuotan. Egun bakarreko bazkide-tza egiteko aukera ere eman dugu, 5 euroan.

♦ **Adingabeek ere gimnasia-rako sarri izango dute hortaz. Ez da behar-bada ohikoena, ala?**

**Jon:** Ez, ez da. 14-16 urtekoak ere etorri ahal izango dira gurera, baina 17:00etatik 18:00etarako tartean, eta monitorearen begiradapean jardungo dira beti. Kardio ariketak, pisu gutxiko ariketak... egin ahal izango dituzte, baina beti begiraleak gidatuta. Garrantzitsua iruditzen zizaitzun adin tarte horretakoei ere lekua egitea. Normalean, 14 bat urterekin jendeak kirola egiteari uzten dio. Eskola-kiroletik kanpo gelditzen dira, linbo batean, eta kirolerako ohitura ere gal dezakete.

♦ **Egongo da gimnasia-rako gerturatzeak halako erreparatu antzeko bat ematen dionik Mendaron ere Zer esango zeniekete horiei?**

**Jon:** Batez ere adinekoak izaten dira duda gehien izaten dituztenak. Erreparatu ematen die makinak ikusteak, ez daudelako indarra lantzerako ohitura. Indarra lantzea, baina, oso garrantzitsua da, batez ere gorputza tente mantentzeko, metabolismoa osasuntsu mantentzeko, eta osteoporosia eta halakoak saihesteko. Hezur masa galtzea eragiten du osteoporosiak eta ondorioz, hezur egitura hondatzearen ondorioz, hezurrak errazago hausten dira. Eta gauza jakina da ariketa fisikoa egitea lagungarri dela osteoporosia prebenitzeko. Halako kezka antzeko batekin gerturatzen diren beste batzuk pisua galtzeko gogoia dutenak dira. Horiei esango nieke kardio-arietak eginda bakarrik zaila dela argaltzea eta forman jartzea. Hartzeko hori kontuan.

♦ **Beste herri batzuetan bezala hemen ere sortu zen korrika elkarrekin egiteko emakume talde bat. Arrazoi askotari-koak eman zituzten batzeko. Askok bakarka kalera kirola egitera irteteko lotsa aipatu zuten. Genero ikuspegitik irakurketaren bat egin duzue zuek?**

**Jon:** Hasiera batean gure taldeak mistoak dira. Deban ere lan egiten dugu eta egia da jarduerak batzuetan genero-diferentziak badaudela, baina esango nuke azkeneko urteetan gauzak aldatzen ari direla. Crossfit taldeetan ere emakume asko ari da sartzen eta ikusten ari garena da emakumea erosoago ari dela talde horietan eta horrek pozten gaitu.

♦ **Bi begirale izango dira gimnasioan. Nola antolatuko zarete? Aurkeztuko dizkiguzue zuen buruak?**

**Jon:** Yuri eta Leire Olazabal dira hemen egongo direnak. Hauek izango dira gimnasioko erreferenteak Mendaron. Yurik hartuko ditu ardurak eta monitore lanak biek egingo dituzte.

**Yuri:** 30 urte dauzkat nik. Umetatik ibili naiz kirol-munduan. Futboleko hasi nintzen eta 19-20 urterekin gimnasioan sartu nintzen, Deban, Jonek gidatutako talde batean. Barruraino sartu zitzaidan orduan harra eta Jonek monitore lanetan hasteko aukera eman zidan. Garai hartan banketxe batean lan egiten nuen nik, baina lan-mundu horretan ez nengoen eroso eta Joni esker, 2016an, pare bat klase gidatu ematen hasi nintzen Debako kiroldegian. Soin Hezkuntzako Euskal Institutuaren (IVEF) lizentziatura amaitzeko ikasturte bat falta dut orain. Leire Olazabal izango da nire lankidea hemen. Joan zen urtean amaitu zuen IVEF Leirek. Astearte, ostegun eta ostiral goizetan egongo naiz ni gimnasioan, eta gainerako ordu guztietan Leire egongo da hemen.

♦ **Plangintza pertsonala ere eskainiko duzue. Zein perfiletako jendearentzat?**

**Jon:** Nahi duten guztientzat. Federatuta dagoen jendea prestatzen dugu, eta baita bestelakoak ere, norbere kasa kirola egiten hasi nahi dutenak. Kompetizioan dabilen jende askori gertatzen zaio, ez duela jakitzen fisikoa nola landu. Entrenamenduetan teknika eta taktika lantzen dituzte klubetan, baina ez dakite ahalmen fisikoa nola landu, eta ez dute jakitzen egiten duten entrenamendu hori den egoekiena eurek nahi dutena indartzeko. Gero beste mila faktore daude hor eragiri dezaketenak: elikadura, loa, atseden... baina behintzat profesional baten laguntzarekin jakin zenezake helburu bat lortzeko zer egitea komeni zaizun gehien. Batetik eskaintzen dugu hori, huts-hutsean, eta bestetik, badago aukera entrenamendu plangintza horretan dieta egoki baterako gomendioak ere sartzeko. Hori ere egiten dugu.



1955

Aste honetako erretratu zaharra Patxi Opakuaren argazki albumetik ateratakoa da. 1955. urteko sanbartolomeetan ateratakoa da, Txiki Egunean, hain zuzen ere. Aurten ez da San Bartolome jairik izan herrian, baina denok izan ditugu festak gogoan, eta bereziki, Txiki Eguna. Egun hori berezia da elgoibartarrentzat, eta beti izan da gainera berezia. Herritarrentzako festa izaten da gehienbat, baina beti etorri izan dira kanpokoak ere Elgoibarrera egun horretan. Argazki honetan ere bi elgoibartar eta eibartar bat ageri zaizkigu:

Gogora dezagun zein diren, **ezkerretik eskumara**: Patxi Opakua, Rafael Areitioaurtena eta bere Eibarko lehengusu bat.

## 2021eko EGUTEGIRAKO ARGAZKI LEHIAKETA



- **GAIA: IRUDI BAT BAZTERKERIATIK BERDINTASUNERA**
- **HELBURUA:** hainbat aldarrikapen egitea, rolak haustea, emakumeen bazterkeria salatzea, kirolaren, aisialdiaren, makina-erremintaren...arlotan emakumezkoak ikusarazteko premia, egun errebeindikatzaileak erakustea, maskulinitate alternatiboak, erantzunkidetasuna, LGTBI+ kolektiboaren aldeko jarrerak...
- **ARGAZKIEN FORMATUA:** Argazkiak etzanak/horizontalak izan beharko dira, eta gutxienez 2 Mb eta gehienez 10 Mb-eko pisua izango dute. Argazkiak JPG formatuan aurkeztu beharko dira.
- **LAN KOPURUA:** Partaide bakoitzak, gehienez ere, 6 argazki aurkeztu ahal izango ditu.
- **LANAK AURKEZTEKO EPEA ETA LEKUA:** Argazkiak bidaltzeko bi aukera daude:
  - a) Argazkiak CD batean, itxitako gutun-azalean, eta honako izenburuarekin aurkeztuko dira: "Elgoibarko egutegia 2021" Argazki Lehiaketa. Barruan egilearen datuak jarriko dira. Helbidea: Aita Agirre (Euskara Saila), Aita Agirre plaza 3, 1. solairua.
  - b) Emailaz, [cuskara@elgoibar.eus](mailto:cuskara@elgoibar.eus) helbidera bidalita.
- Argazkiak aurkezteko epea: **2020ko urriaren 8ra arte**
- Lehiaketaren oinarriak: [elgoibar.eus](http://elgoibar.eus)







# Eskola kiroleko entrenamenduak urrian hasteko bidea eman du Aldundiak

**Korapilo askoko mataza da eskola kirolarena. Araban eta Bizkaian atzeratu egin zuten eskola kirola, harik eta pandemiaren bilakaerak berriro "modu seguru batean" hasteko aukera eman arte, baina jardueretarako izena emateko epea zabaldu dute, bai eta entrenatzaileek derrigorrean egin beharko duten formazio-saiorako izena emateko epea ere. Gipuzkoan, aldiz, entrenamenduak urrian hasteko bidea eman du Aldundiak. Bada alderik, baina, hiru lurraldeon artean eta ari da zeresana ematen. Bizkaian eta Araban ez bezala, Gipuzkoan eskola kirolean eman behar da izena klubetarako atea zabaltzeko.**

- AINARA ARGOITIA -

Batzar ordu asko izan dituzte egunotan eskola kirolean inplikaturako 350 eragilek Gipuzkoan. Hala jakinarazi dute kirol erakundeetako ordezkariak, bai eta guraso elkarreetako arduradunek ere. Ordu asko, COVID-19ak eragindako ziurgabetasun egoera honetan kezka ere asko direlako. Baina Gipuzkoako Foru Aldundiak hartu du erabakia. Astelehenean bertan jakinarazi zuen Harkaitz Millan Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Gazteria eta Kirol diputatuak "kontakturik gabeko" eskola kiroleko entrenamenduak urrian hasiko direla, baina urtarilerara arte ez dela txapelketarik hasiko infantiletan eta alebiretan. Erabakia hartzeko kontuan hartu dute, batetik, jarduera fisikoak eta kirolak haurren osasunean eta ongizate psikologikoan duten eragin zuzena. "Eskola kirola bertan behera utziko bagenu, baliabide ekonomiko urriko ikasleei eragingo genieke

kalte handiena, kasu askotan, eskolaz kanpoko jarduera bat egiteko aukerarik gabe geldituko liratekeelako, nahiz eta haien garapen emozional eta sozialerako oinarri-oinarritza izan", esan zuen horren harira Millanek [iaz, Lehen Hezkuntzan matrikulatutako ikasleen %79k parte hartu zuten eskola kirolean]. Beste arrazoi bat ere eman dute, baina: eskola kirola bertan behera lagata, genero-arrakala handitzeko dagoen arriskua, neskek kirola azkarrago lagatzeko joera dutelako.

Hasteko bidea eman du Aldundiak, baina ez edonola. Protokolo bat zehaztu du eta 50.000 euro agindu ditu ikastetxeak ezarritako protokoloetara egokitzeko behar duten materiala erosteko. Denboraldia hasteko, kirol diziplinetako jarduerak eta lehiaketak antolatzen dituzten erakundeek bermatu beharko dute jarduerak eta lehiaketak kontaktu fisikorik gabe eta pertsonen arteko gutxie-

neko segurtasun distantzia mantenduta egiten dituztela, eta behar izanez gero, joko-arauak egokitu beharko dituzte horretarako. Era berean, eskola kirolean parte hartzen duten begirale guztiek Kiro-laren Euskal Eskolak zuzendutako prestakuntza ikastaroa egin beharko dute [irailaren 30a arteko epea dago izena emateko]. Eta kirol jarduerak, entrenamenduak eta besteak, talde txikietan egin beharko dira. Taldeak, gehienez, 15 lagunekoak izango dira (teknikariak barne), saioak edo entrenamenduak banakakoak izango dira, segurtasuneko gutxienezko distantziari eutsi beharko diote, eta ahal den neurrian, umeek ezingo dituzte materialak (edariak, elikagaiak, botikak...) partekatu. Neurri horiek hartuz gero, ikastetxeak kirola egiteko "ingurune segurua" direla uste du Kultura eta Kirol departamenduak. Eta horren harira honakoa gehitu zuen

Millanek: "Ingurune seguruetan egiten den kirola aliaturik onenetakoa da haurrek eta, oro har, herritarrek beren osasuna eta egoera fisikoa hobetzeko eta pandemiak sortutako egoera ahalik eta modu osasungarrienean gainditzeko".

Izena emateko epea ere zehaztu dute: irailaren 21etik abenduaren 31ra. Bizkaian eta Araban beste bat da egoera. Bi lurraldeotan entrenamenduak eta lehiaketak etenda daude momentuan, baina jardueretako izena emateko epea zabaldu dute, bai eta preskuntza ikastaroak egiteko ere. Izan ere, osasun egoerak hobera egiten duenerako prest egon nahi dute Bizkaiko eta Arabako aldundiek. Hori bai, aurreratu dute, egun hori iristen denean ere, ez dutela ikuslerik onartuko eta haurrek ezingo dituztela aldagelak erabili.

## Naiara Eizagirre eta Mikel Tarragual



Mendaro Ikastolako Arno Guraso Elkarteko kideak dira Naiara Eizagirre eta Mikel Tarragual, kirol arloaren arduradunak. Aitortu dute ezustean hartu dituela Gipuzkoako Foru Aldundiaren erabakiak eta presa halako bat igarri dutela eskola kirola martxan jartzeko erabaki horretan. "Bilerak egin ditugu, eztabaida egon da, kezka ugari agertu ditugu, erantzun gutxi eman zaizkigu, kontraesanak azaleratu dira, eta egun batetik bestera, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskola kirola urrian hasteko bidea eman du. Ez dugu ulertzen oraingo presa hori", adierazi dute. Eskola kirola "behar-beharrezko" ikusten dute. Bat egiten dute eskola kirolaren helburuekin, baina zalantza dute orain hasteko baldintzak ematen ote diren. Eskola kirolaren helburu nagusiak hiru dira: haurrak aktibo mantentzea, kirol kulturaren hezteak, eta denek ematea aukera beren talentua garatzeko. Era berean, kirolaren bidez harremanak egiten dituzte eskola-umeek, euskara lantzen dute eta hainbat balio eskuratzen dituzte. Bada gehiago ere: "Eskola kirola berdintasunean oinarritzen da. Denei ematen die aukera, neskei, mutileri, kirolean onak direnei zein eskastxogo moldatzen direnei, egoera sozio-ekonomiko guztietako familiei, herri txiki zein handietakoei... denei, eta horregatik ere, edo horregatik bereziki, berebiziko garrantzia dauka". Berbak

zainduta ari dira hizketan, baina susmoa dute Gipuzkoako Foru Aldundiak "egun batetik bestera" eskola kirola martxan jarri nahi izate horren atzean klubek egindako presioa dagoela. Izan ere, Gipuzkoan, berez, eskola kirolean izena ematea eta entrenamenduetara joatea derrigorra dute umeek kirol klubetan lehiatu ahal izateko. Eta aipatutako errezeloaren arrazoiak zerrendatzeari ekin aurretik, azpimarra bat egin dute: "Zenbat lan egin behar izan dugun guk gurasoek barnera zezaten ezinbestekoa dela umeak entrenamenduetara eta partiduetara agertzea; ezin dela haurrak Sanlora joan nahi duelako bakarrik eman izena eskola kirolean eta gero eskubaloiko entrenamenduetara eta partiduetara bakarrik agertu [hiru kirol lantzen dituzte Mendaron: eskubaloia, futbola eta saskibaloia]. Taldea zaindu behar da".

Zehaztapen horren ostean arrazoitu dute beren errezeloa: "Foru Aldundiak malgutasuna eman digu izena emateko epea zabalitzeko orduan. Irailaren 21etik abenduaren 31ra arteko tarteak laga digu antolatzeke, protokolora egokitzeko eta kondiziotan hasteko. Bi erronka nagusi planteatzen dizkigu protokoloak, gehiago ere badiren arren: batetik, ikastetxean sortu dituzten bizi-kidetza talde egonkorak mantentzea, eta bestetik, kontakturik gabeko entrenamenduak prestatzea. Hori bai, klubek urriaren 1ean hasi ahal izango dituzte entrenamenduak eta ikastetxe, gela eta herri ezberdinetako neska-mutilak ere nahastuko dira taldeetan". Eta detaile bat gehitu dute, "zehaztapen garrantzitsua": "Izena ematen duten adin bereko guztiak nahastuko dira klubetan, baina, kontrara, eskola-ume guztiak ez dute aukerarik izango klubetan sartzeko". Beste hitz batzuekin, baina horixe bera nabarmendu du Aldundiak berak ere eskola kirola martxan jartzeko arrazoiak artean. Eta klubak aurretik haste horrekin lotuta, herri askotan arazoak sortuko direla aurreikusten dute. "Gu hasterako, umeek okupatuta izango dituzte arratsalde asko eskolaz kanpoko jarduerekin eta herri arazoa izango da eskola kiroleko entrenamendu-orduak lotzeko. Ez da horrenbeste gure kasua, Mendaron ostiral arratsaldeetan egiten ditugulako, baina Tolosakoek eta beste herri ba-



tzuetakoek bota zuten hori ere azke-neko batzarrean, eta Elgoibarren ere gertatuko da hori ziurrenik”.

Nolanahi ere, “hasi behar bada”, urriaren azkenerako hasteko aukera ikusten dute Mendaron. “Bestela ere urri bukaera aldera hasi ohi gara hemen eskola kirolean”. Ikusi beharko dute zenbat umek ematen duten izena eta, jakina, baita zenbat guraso dauden prest ere entrenatzaile lanetan aritzeko, Mendaron guraso boluntarioekin osatzen dituztelako taldeak. Eta hor dute beste kezka bat. “Ikasturte berezia da hau. Entrenatzaile izango direnek 2 orduko formazio-saio bat egin behar dute ezinbestean eta protokoloa betearazteko ardura izango dute. COVID-19ak sortu duen egoera honetan, guraso batzuek atzera egingo dutela badakigu. Gehiago ere bada: kontuan hartu behar da, gainera, kontakturik ezin dutela izan umek entrenamenduetan eta hori egingarri egiteko bidea asmatzea zaila bada profesional batentzat pentsa zer den kirolean ezagutza berezirik ez duen guraso batentzat!”.

Dena berrantolatu beharko dutela garbi dute. Ikastolako bizikidetzat talde egonkorak mantentzekotan, talde mistoak egin beharko dituzte aurten, bestela ezingo delako talderik osatu. Aspaldiko eztabaida da neskak eta mutilak elkarrekin edo banandurik jokatu behar ote duten hori. Askok pentsa dezakete berdintasunean oinarritutako heziketa bermatu nahi bada, eredu

*“Urriaren 1ean hasi ahalko dira klubetan eskola-umeak eta ikastetxe eta herri ezberdinetakoak nahastuko dira, eta guk eskolako talde burbuilak zaindu behar ditugu”*

mistoa dela egokiena. Datuek, baina, bestelakoa erakusten dute sarri: elkarrekin jokatzen dutenean mutilak hartu ohi dutela protagonismoa eta, gainera, ezin esan daitekeela eskola kirolean nesken parte-hartzea areagotzen denik. Horri buruz galdetuta, ez dute aparteko arazorik ikusten Mendaron, baina badute generoare-

kin eta izenemateekin lotutako beste kezka bat. “Mutilak etorriko dira, C.D. Elgoibarrera, Amaiak-Batera, Sanlora, Debako saskibaloitza taldera joan nahiko dutelako edo horretarako eskola kirolean hasi behar direlako. Neska askok, baina, ez dute behar hori sentitzen eta arriskua ikusten dugu egoera honetan, kirola zein baldintzatan egin behar den jakinda, gurasoek esateko: ‘Aurtengoagatik ez zaitez apuntatu eskola kirolera’. Eta pentsa zenbat galduko genukeen!”. Nesken parte-hartze datuetan batez bestekoaren gainetik daude Mendaron. “Izena ematen dutenen %48 inguru dira gurean neskak eta oso harro gaude horrekin urteetako lana dagoelako horren atzean. Guretzat oso garrantzitsua da neskak erakartzea, neskek ez dutelako mutilak besteko tirarik kirolerako, eta gutxienez, eskola kirolari esker aktibitate mantentzen dutelako. Genero-arrakala hori saihesteko bidea asmatu behar dugu. Are gehiago hemen, Mendaron, eskola kirola LH3. mailan hasten denean, hemen ez dagoelako JolasHezi programarik”.

## David Rodriguez



**E**skola kiroleko Elgoibarko arduraduna da David Rodriguez, eta ezin du kezka ezkutatu. Argi du Gipuzkoako Foru Aldundiak zehaztu dituen neurriekin ezingo dituztela Elgoibarren behintzat eskola kiroleko entrenamenduak urriare-

kin batera hasi. “Aztertu behar dugu ikasturte hasiera hau nola doan, pandemiak zer bilakaera izaten duen eta ikastetxeetan baldintzarik ematen den, modu seguruan ekiteko eskola kiroleko entrenamenduei”, zehaztu du. Urriaren 5ean biltzekoak dira Elgoibarko Eskola Kontseiluko ordezkariak eta kirol patronatukoak zer eta nola egin erabakitzeko, baina Rodriguezek zaila ikusten du.

Behar-beharrezkoa irizten dio eskola kirolari eustea: “Ume guztiek ez dutelako kirolerako joera eta denok dakigulako kirola egitea zein mesedegarri den haurren garapenerako.

Ikusi dugu konfinamenduan kirola egiteko aukera izan dutenei ere eramanerrazagoa egin zaiela itxialdia bera”. Baina, martxan hasteko bete beharreko neurriak bermatzean ikusten du zailtasuna. “Ikastetxeetan sekulako lana egiten ari dira. Bizikidetzat talde egonkorak osatu dituzte eta eskoletan egiten ari diren lan hori ezin dugu ezerean laga, jakina. Taldeak mantendu beharko lirake eskola kirolean, txanda ezberdinak egin, eta hor arazo bat sortuko zaigu, haurrak eskolaz kanpoko jarduera askotan daudelako eta gu hasten garenerako familiek oso zaila izango dutelako eskolaz kanpokoen ordutegiak ezkontzen”. Gehiago ere bada. Entrenamenduak eta beste “kontakturik gabeak” izan behar direla zaindu beharra dute eskola kiroleko arduradunek. “Eta nola bermatu behar dugu hori eta aldi berean eskaintza erakargarria egitea umeentzat? Irudimenetik tira egin beharko dugu, ezin ditugulako eskola kirolean momentu oro umeak lerroka izan, soldaduskan moduan. Erronka handia daukagu hor. Haurrei kirol ezberdinak probatzeko aukera eman behar diegu, eta kirola eginez gozatzeko bidea. Jolasa ere ezinbestekoa da”, zehaztu du.



Maitena Zubia, Iñaki Raigoso, Andoni Segundo eta Jokin Martinez.

## ▶ JOKIN MARTINEZ ONGARRI ZINE KLUBEKO KIDEA

# “Woody Allenen azken lana Donostian filmatu izanak morboa pizten du”

Donostiako Zinemaldiaren 68. edizioa gaur hasi da eta urteroko zita horrekin bat eginez, atzo hasi zen Elgoibarren Iñaki Agirre zinemaldia. Iaz Donostian ikusi ahal izan zen ‘La Camarista’ filmak inauguratu du aurtengo zikloa. Drama, komedia, zientzia fikzioa eta beldurra, denetatik dago zineklubak aurten antolatu duen zikloan. Horren berri eman digu Ongarriko kide den Jokin Martinezek.

- LEIRE URKIDI -

♦ Ongarrik eskaintako Bilboko Zinegoak zinemaldiko laburmetraiekin itxi zen martxoan Herriko Antzokia, alarma egoeraren ondorioz. Iraileko zikloarekin hasiko dituzue berriro zinema emanaldiak. Zein harrera espero duzue?

Espektatiba onak ditugu. Udan jendea zinera gutxiago joaten da eta iraila hilabete polita izaten da. Ikusleak

gogoz etortzen dira, kalitatezko filmak ikusteko gosea sumatzen da.

♦ Egoerak eskatuta zein neurri har-

*“Isabel Coixetek Donostian jasoko duen zinema saria merezitakoa da”*

tuko dituzue zinema era seguruan eskaintzeko?

Udalak ezarritako neurriak dira. Aretoko ilara bakoitietan jendea eseriko da eta bikoitiak itxi egingo dira. Horrez gain, eserleku bat erabiliko da eta bi libre utziko ditugu. Berez Herriko Antzokiak 420 lagun har ditzake, baina 103rentzat tokia egongo da gehienez egoera hau mantentzen den bitartean.





## “Herriko antzokiak 420 lagun har ditzake, baina Covid-19aren aurrean hartu beharreko segurtasun neurriak direla-eta, 103 hartuko ditu”

aurrekoak bezala emakume bat du protagonista, kasu honetan, Cate Blanchett, hainbat film independentetan parte hartu duen aktorea. Aukera askotarikoa dago aurten.

♦ **Bestetik, Zinegoak [Bilboko gaylesbortans zinemaldia] eta Laburbirari [Topaguneak antolatutako euskarazko laburmetraien sortari] tartea egin diozue aurten Iñaki Agirre zinemaldiaren barruan eta 12 egunez jarraian zinea izango dugu Elgoibarren.**

*Tu me manques* luzemetraia eta Laburbirako laburmetraiak martxoan ematekoak ginen, baina COVID 19ak sortutako egoeratik bertan behera utzi behar izan genituen eta aukera polita iruditu zaigu orain berreskuratzea. Bi emanaldi hauek gainera dohainik izango dira.

♦ **Gaur hasi da Donostian Zinemaldiaren 68. Edizioa. Aurten ospatuko zela uste al zenuen?**

Egia esan, egoera ikusita, nazioarteko izarren presentzia galdu eta gainerakoa on-line egingo zutela pentsatzen nuen, baina azkenean egiteko aukera izan dute, Venezia-koa eta Malagako bezala. Glamour gutxiago izango du ziur aski, baina zinemak bere tokia izango du.

♦ **Zer deritzozu Viggo Mortensen aktoreari Donostia saria ematea?**

Zinemaldiak bi funtzio ditu: batetik, kulturalitateko zinema eskaintzea eta bestetik, *glamourra* izatea. Sari hauek funtzio bat betetzen dute eta hori ulertuta, Mortensenek paper onak interpretatu ditu. Egia da

badaudela jende gehienarentzat hain ezagunak ez diren zuzendari eta aktore asko ere, eta haiek ere horrelako sariak mereziko lituzkete.

♦ **Zer deritzozu 2020ko Zinema saria Isabel Coixetek jasotzeari?**

Zuzendari honen lana estimatzen dut eta bere estiloa gustuko dut. *Cosas que nunca te dije* (1996) bere lehenengo lanetako bat gogoratzen dut eta ordutik gauza asko egin ditu. Isiltasunak maisuki erabiltzen ditu bere lanetan eta Kim Ki Duk zinemagile korearra miresten du. Horrek guztiak bere lana aberatsagoa egiten du, eta merezitako saria dela uste dut.

♦ **Woody Allenen azken lanak, ‘Rifkin’s festival’ filmak, inauguratuko du gaur Donostiako zinemaldia? Nolako filma izango dela uste duzu?**

Eskarmentu handiko zuzendaria da eta film onak egin ditu, baina azkenaldian filmak goxatzeko formula aurkitu du eta horretara jotzen du. Donostian grabatu zuen, eta gertutasun horrek morboa ematen dio filmari. Ikusleak ikusi nahi du ea Donostia nola agertzen den filmean. Eraitza ona izan daiteke, baina ez dut uste bere film onena izango denik.

♦ **Aurten Fernando Aranburu idazlearen ‘Patria’ nobelan oinarritutako seriea ikusteko aukera ere izango da zinemaldian. Aitor Gabilondok zuzendutako lan hori lehia-keratik kanpo sail ofizialeko emanaldi berezi batean ikusiko da. Zer deritzozu zinemaldiak telebidei presentzia emateari?**

Ondo deritzot, ez dut uste telebidei kalterik egiten diotarik zinemari: bi aukera dira, eta aurkezteko formak ez du garrantzirik. Azken helburua jendea irudiaren bidez entretenitzea da.

♦ **Aurtengo zinemaldian zerk sortu du zure interesa? Zer ikusi nahi duzu?**

Nire aukeren artean hiru daude: Lehen, *El Drogas*, Enrique Villarreal, nagusiki Barricada taldeko kidea izateagatik ezaguna den musikariari eskainitako dokumentala. Bigarrenik, Rodrigo Sorogoyenen *Antidisturbios* telesaila eta Naomi Kawaseren *True mothers* (Asa Ga Kuru) filma.

♦ **Zein irizpide erabili dituzue aurtengo filmak aukeratzeko?**

Iraileko zinemaldian ohitura da aurreko edizioan Donostiako zinemaldian emandako filmak erakustea, baina iazko edizioaren arrakastak aukerak mugatu dizkigu. Izan ere, film asko ohiko zinema aretoetara iritsi dira oro har, hau da, zineklub egunetatik kanpo. *La Camarista* filmarekin hasi nahi izan dugu. Donostiako Zinemaldiko Zuzendari Berrien atalean ikusteko aukera izan zen, eta filmak arrakasta izan du.

♦ **Berlinalen parte hartu ondoren SEMINCI-n, Valladolideko zinemaldian, parte hartu eta pelikula onenaren saria jaso zuen ‘El huevo del dinosaurio’ (‘Öndög’) da aukeratutako beste bat.**

Film hau ekaina baino lehen ikusteko aukeratu genuen eta egoerak behartu gaitu orain ematera, baina merezi duenez, une egokia dela uste dugu. Bestetik, *Under the skin* Scarlett Johansson protagonistatzat duen filma orain dela zazpi urte estreinatuta zen, baina orain arte ez da iritsi gure pantailetara eta ikusmina sortu duen filma da. *¿Dónde estás, Bernadette?* (*Where’d you go, Bernadette*) filmak ere



## *Izaskun Soraluze Lizundia*

2020ko irailaren 15ean hil zen, 64 urte zituela.  
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak.



## *Izaskun Soraluze Lizundia*

***Maitasunez, beti gure bihotzetan.***

Nekaezinak



Eskertzak eta urteurrenak  
**943 743 704 / 943 744 112**  
Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk  
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus



## *Izaskun Soraluze Lizundia*

2020ko irailaren 15ean hil zen, 64 urte zituela.



***Betirako izango zaitugu gogoan.***

**ZUBI - ONDO**





**Aidian irabazi (partidua):** Partidua oso erraz irabazi denean esan ohi da. *Aidian irabazi jauat pelota-partidua anaixari.*

## Martxotik itxita egon ondoren, Herriko Antzokia zabaldu du berriz Elgoibarko Udalak

COVID-19k eragindako pandemiaren ondorioz itxi ondoren, Elgoibarko Herriko Antzokian berriro ekin dio ohiko jardunari. Herritarren eta Herriko Antzokiko behar-ginen segurtasuna bermatzeko neurriak hartu dituztela jakitera eman dute udal arduradunek: besteak beste, antzokiaren edukiera mugatu dute eta lehen ia 400 lagunentzako aforoa bazuen, orain 103 lagun sartu ahal izango dira gehienez. Erabili ezin daitezkeen eserleku-lerroak edo banakako eserlekuak zein diren argi gera dadin zintak eta txarteltxoak erabiliko dituzte. Horrez gain, etenaldia zenbait berrikuntza egiteko aprobetxatu dute: moketa berria jarri dute lurrean, eta irisgarritasuna hobetze aldera, begizta magnetikoa jarri dute audifonoa erabiltzen duten pertsonentzat. Zineklubaren emanaldiekin zabaldu zuten atzo Herriko Antzokia, eta pandemiaren ondorioz bertan behera geratu zen XIX. Aurreku eta Soinu Zahar txapelketa ere egingo da, urriaren 24an, hain zuzen ere. Elgoibarko Izarrak antolatzen duen Bertso Jaialdiak ere badu eguna: abenduak 29, eta, Elgoibarko Udal Musika Bandaren hileroko kontzertuak ere bueltatuko dira Herriko Antzokira, proiektatutako dokumentalak eta Mendi Tour 2020 (azaroak 20) itzuliko diren moduan. Abenduaren 27an, bestalde, Debabarreneko Orkestra Sinfonikoak kontzertua emango du 12:30ean, doan. Hona abendura arteko ekitaldi nabarmenenak:



### 'Zaldi Urdina' - Urriak 23



Aingeru 17 urteko mutikoak ihes egingo du, jai-giroan beste gazte bat droga hartuta hil denean, susmagarria delakoan. Haren atzetik eta azken urteotan drogak Euskal Herrian utzi duen arrastoaren bila, pertsonaiek bidaia bat abiatuko dute ikuslearen gozagarri eta hausnarketarako gai.

### 'Moko Zorrotza' - Azaroak 13



Aitziber Garmendiak eta Jon Plazaolak parte hartzen dute. Juanek estudio bat du etxeko ganbaran, izarrei begira. Laura ikastolako aspal-diko laguna bizitan azaldu zaio Vega Sicilia ardo botila dotorearekin. Gaztetako kontuez eta liatuta egon zireneko haietaz hitz egin ostean, Guzmanekin ezkontzera doala esan dio, biek Institutuko kide izan zuten mutilarekin. Berriketan ari diren bitartean, benetan bera maite duela erakutsiko dio Laurak Juani, eta biontzat ametsetako etorkizuna antolatzea erabakiko dute: Guzman ezkongai utzi eta beraiek biak ezkontzea. Horretan ari direla, bat-batean ateko txirrinak jo du eta... Ezer ez da dirudiena izango.

### Yllanaren 'Chefs' - Abenduak 11

Gastronomiaren mundu liluragarriari buruzko saioa da. Inspirazioa galdu duen ospe handiko sukaldari bat da protagonista. Sukaldari-talde burugabe batean konfiantza izan behar du, errejeta ikusgarri eta berria sortzeko eta, hartara, jabetzeko izarrei eusteko. Aldi berean, sukaldaritzaren munduko hainbat alor landuko dituzte: nola jaten ditugun elikagaiak, elikatzen gaituzten animaliak, munduko sukalde eta zapoak...



### Umeentzako antzerkiak

Umeek ere hainbat ikuskizunez gozatzeko aukera izango dute hilabete hauetan zehar. Nabarmenezkoak dira, besteak beste: *Mari* eta *Gaileta fabrika*, Gorakadaren *Pinocchio* eta Glu Glu-ren *Botadun katua*.



## ► LEIRE GARATE ARRAUNLARIA

“Aurtengo ospakizuna intimoagoa izan denez, sentrazio guztiak patxadaz dastatu ditut”

Arraun denboraldiko bi garaipen estimatuenak, Kontxako Bandera eta Euskotren Liga, eskuratu dituzte Orio Arraunketa Elkarteko emakumeek. 'Plenoa' egin dute bigarren urtez jarrian. Leire Garate arraunlari elgoibartarrak eman digu pandemiaren eraginez ezohikoa izan den denboraldiaren eta traineru barruan zein kanpoan izan dituzten bizipen berri.

- ASIER ORBEA -

◆ Donostiarra taldeko traineruak estu hartu zintuzten Kontxako lehen igandean. Bigarren igandean, ordea, hiru segunduko abantailari eusteaz gainera 11 segunduko aldea ateraz zanieten, eta erakustaldia emanaz eskuratu duzue bigarren goz Kontxako Bandera.

Halako estropada garrantzitsuetan urduritasuna nabarmena den arren, argi genuen denboraldiari amaiera ona eman nahi geniola, Kontxako Bandera bigarren urtez jarraian irabazita. Denboraldi osoan izugarri kosta zaigu nahi genuen arraunkera hartzea. Zarauzko estropada irabazi ostean, abuztu bukaeran, ailegatu ginen gure sasoi puntu onenera. Kontxako lehen igan-

dean ezin gusturago irten ginen uretatik, egindako lanarekin pozik. Egia da irteeran atzetik joan ginela, baina guregan konfiantza geneukan eta ia hiru segunduko errenta lortu genuen. Bigarren igandean abantailarik edukiko ez bagenu moduan egin genuen arraunean, hutsetik hasiko bagina moduan. Irteera indartsua egin genuen, arraunean gozatu, baina Donostiarra trainerua ere bizi-bizi irten zen eta segundu bateko aldea eduki zuen lehen bizpahiru minutuetan. Ez ginela urduri jarri izan zen gakoa. Aurtan hori ere ikasi dugu, aurreko urteetan gure burua atzetik ikusten genuenean ez genuelako gure ahalik ematen. Taldearen arraunkeran eta indarrean konfiantza edukitzea da gakoa. Bagenekien ira-





bazteko gai ginela eta egoerari buelta eman genion. Denboraldia gustura, sentsazio onekin, bukatzea lortu dugu.

♦ **Pandemia dela-eta hartutako segurtasun neurrien ondorioz, Bandera jaso eta hutsik topatu zenuen Donostiako arranpla, zalerik gabe. Arrarora izango zen, ezta? Zer sentitu zenuen?**

Arranpla hutsik ikustea arrarora izanagatik, martxoan galdetu izan baligute arraun denboraldia edo Kontxako Bandera jokatzeke aukerarik ikusten genuen... Zalantza asko genituela aitortu behar da, txapelketetan lehiatzeko demaseko gogoia geneukan arren. Ikusiak ikusita, ez daukagu ezertaz kezakerik. Denboraldi osoa jokatzeke aukera izan dugu gure kirolean. Hori izan da garaipenik handiena. Iaz eduki nuen zaleen artean ospatzeko aukera eta dagoen onena da, itzela, baina jendeartean azkarrago pasatzen da dena, eta ez daukazu dena barneratzeko astirik ia. Aurtengo ospakizuna intimoagoa, gertukoagoa, izan denez, detaile eta sentsazio guztiak patxadaz dastatu ditut. Adibidez, aurten arranpla ez zegoen hori kolorez jantzia, gure zaleak falta genituelako, baina oso polita izan zen gure aurka borrokan ibilitako taldeak kirol legez gu txalokatzen ikustea. Hunkigarria izan zen.

♦ **Iaz irabazi zenuen estreinakoz Kontxako Bandera, hortaz, ezagutzen zenuen zer sentitzen den Kontxa irabaztean eta garaipena ospatzean egoera normal batean.**

Bai, bi egoerak ezagutu eta biziitzeke aukera izan dut. Erabat desberdinak izan dira bi ospakizunak, baina biak mundialak.

♦ **Iazkoa modukorik ez, baina zaleek ongi-etorria egin zizueten Orion.**

Oriok Kontxa nola bizi duen jakinda zerbaitegin beharra zegoen. Zaleei emandako babeseta eta animoak eskertzeko herriko zenbait kale gurutzatu genituen Kontxan irabazitako banderarekin. Nahiko jende batu zen kalean eta herriko zubian. Oso-oso polita izan zen, hunkigarria. Igande goizean 7:00etan irten ginen klubetik Donostiarantz eta hor ere gu agurtzera eta animoak ematera etorri ziren hainbat zale, aurten Donostiara joan ezin zutela-eta. Bideo mordo bat ere ailegatu zaizkigu, orioarrek etxetik edo tabernetatik estropada nola jarraitu zuten erakusten dutenak. Aurten udaletxeko balkoira igo ezin ginenez, horiei denei eskerrak emateko modua izan zen bandera kalean erakustea.

♦ **Gainerako kirol jarduerak bezala, pandemiak baldintzaturako arraun denboraldia izan da aurtengoa. Nolako bizipenak izan dituzu?**

Gure denboraldia oso ona izan da. Iaz moduan, aurten ere asko gozatu dugu. Pandemiagatik desberdina izan da, noski. Ordu mordo pasatu ditugu etxean entrenatzen, denboraldia hasiko zen jakin gabe, ziurgabetasun handiarekin, azken ordura arte ez baikeguen jakin lehiatuko ginen ala ez, eta ikustea entrenamendu guzti horiek balio izan dutela handia izan da. Izan ere, aurreko urteetan uretan entrenatzen genuena etxean entrenatu behar izan

*“Gauza asko laga behar izan ditugu albo batera denboraldian eta horiez gozatu nahi dut orain”*

dugu aurten, eta uretan gehiago gozatzen da ergometro batean baino. Bakarrik eta pantaila bati begira entrenatzeko motibazio handia behar baita. Ni oso baikor egon nintzen konfinamenduan, eta

gogor eta gogoz entrenatzeko esaten nien taldekideei, denboraldia jokatuko zen esperantza neukalako. Klubak laguntza eta baliabide guztiak eman zizkigun etxean entrenatu ahal izateko. Merezi izan du ahalegin guztiak.

♦ **Hartu beharreko segurtasun neurriek izan dute eraginik zuen eguneroko jardunean?**

Hasieratik ezagutzen genituen babes-neurriak. Guztiok bete beharreko ohiko neurriez gainera, beste taldeetako arraunlariekin ez nahastea komeni zen, dutxarrik ere ezin genuen hartu lehen ostean, eta Oriora bueltatzean dutxatzen ginen klubean. Horiek eta gainerako neurrietara moldatu gara eta ez dira arraunean egiteko eragozpena izan. Konfinatuta egon garen denboran pasatukoak eta gero, eta askok izan duten sufrimenduarekin alderatuta, gogoko dugun kirola egiteko zortea izan dugu guk.

♦ **Eta orain zer?**

Hurrengo bi hilabeteak arraunetik deskonektatu eta atseden hartzeko erabiliko ditugu taldekide guztiok. Kontxako Bandera irabazi eta biharamunean joan nintzen ni oportetara. Urtean zehar egon ezin garen senide eta lagunekin egoteko aprobetxatuko dit denbora hau. Gauza asko albo batera laga behar izaten ditugu denboraldian eta horiez disfrutatu nahi dut orain.





## Zalantza adina gogorekin hasiko du denboraldia C.D. Elgoibarrek

Ligako aurreneko jardunaldia jokatu izan behar zuen honetako Haundik, baina kirol txapelketak ere hankaz gora jarri ditu koronabirusaren pandemiak. Urriaren 18an jokatu dute ligako lehen partida, ustekaberik ezean. Aurreko denboraldian Ohorezko Erregional Mailatik inor ez zen jaitsi, eta ondorioz, 21 talde izango dira lehian, normalean baino hiru gehiago. Bi multzotan banatuta lehiatuko dira, eta multzo bakoitzeko lehen hirurek jokatu dituzte gogearako kanporaketak. Gainerako taldeek elkarren aurka jokatu dute, maila galduko duten bost taldeak zein izango diren erabakitzeko. Gainera, taldeek partida guztiak jokatuzko zailtasunak izan ditzaketela aurreikusita, sailkapena puntuen ratio bidez osatuko dute, hau da, jokatutako partidak eta partida horietan lortutako puntuak



hartuko dituzte kontuan sailkapena egiterakoan. Dena dela, oraindik badira erabat zehaztu gabe dituzten gauzak, besteak beste, talde bakoitzak gutxienez jokatu beharko duen partida kopurua.

Haundik abuztu hasieran hasi zituen entrenamenduak, eta, hortaz, bi hilabete eta erdiko denboraldi-aurrea eginda ailegatuko da ligako lehen partidara. "Luzea egingo zaie denboraldi-aurrea jokalariei, are gehiago lagunarteko partidarik jokatu ezin izan dutelako", zehaztu du taldeko presidente Jon Basurtok. Hain justu, zapatu honetan jokatu dute estreinako lagunartekoa, Zumaia-koren aurka, Zumaian. Emakumeen taldeak eta kadeteek ere egun berean jokatu dituzte lagunartekoak Zumaian. Zalerik gabe jokatu dituzte partida horiek. Aurten hiru fitxaketa egin ditu C.D.

## Gipuzkoako txapelketarekin hasiko dira lehian Lagunak eskolako pilotariak



Kadete mailatik gorako Lagunak Pilota Eskolako pilotariak gaur, hilak 18, ekingo diote lehiari, Ikastolako frontoian jokatu dituzten neurketekin. Gipuzkoako txapelketako partidak jokatu dituzte, eskuz binaka kadeteak eta gomazko paletan nagusien hiru bikote: 1. 2. eta 3. mailetan. Lehen partida, eskuzkoa, 19:00etan hasiko da. Markagailu elektronikoa berria erabili ahal izango dute partida horietan (ondoko argazkian). Hainbat urtean erabili duten egurrezkoa ordezkatu baitu Udal Kirol Patronatuak. Abuztuaren 23an estreinatu zuten, profesionalen arteko partiduetan. Lagunak eskolako arduradunek aurreratu dutenez, pilota eskola urriaren 1ean hasiko da, eta parte hartzera animatu dituzte zortzi urte edo gehiagoko neska-mutilak. Interesa dutenek honako telefono zenbakira deitu behar dute: 690 612 927 (Aitor).





Elgoibarrek Haundirako:: Ekain Andueza, Aitor Urreisti eta Jon Begiristain atezain elgoibartarra. Horiez gain, behe mailetako hainbat jokalaria ari dira parte hartzen Haundiren entrenamenduetan eta Pablo Turrillas entrenatzailea gustura dagoenez ematen ari diren mailarekin, horietakoren batek izan dezake aukera talde nagusian jokatzeko. C.D. Elgoibar taldeko beste hainbat taldek irailaren 7an hasi zituzten entrenamenduak. Alebin, infantil eta Futbol Eskolarekin dago zalantza handiena. Aurreikusten dutenez, urriaren erdialdera hasiko dira entrenatzen. Lehiaketak, baina, urtarillan hasiko dira. C.D. Elgoibarreko kideek koronabirusetik babesteko neurriak hartuta hasi dituzte entrenamenduak. Norbaitetik sintomaren bat badu, ez du entrenatzera azaldu behar, ez baitute baliabiderik astero PCR probak egiteko. Mintxetara iristean

temperatura hartzen diete jokalariei, sukarririk ez dutela egiaztatzeko, eta ez dituzte aldagelak erabiltzen. Protokolo bat osatu dute hartu beharreko neurriekin. Taldekideren batek positiboa ematen badu bertan behera lagako dituzte entrenamenduak. Segurtasun neurrien artean, Mintxetako edukierari dagozkion arauak ere zorrotz bete behariko dituzte hastear den denboraldian. Eusko Jaurlaritzak erabaki du kirol jarduerara leku irekietan baldin bada, baimendutako edukieraren %60ak izango duela neurketak zuzenean jarraitzeko aukera, gehienez 1.000 ikusle izan arte. Alabaina, Jaurlaritzaren irizpide orokorren gaineratik, Udal bakoitzarena da eskumena. Elgoibarko Udalak erabaki du oraingoz ikuslerik gabe egitea entrenamenduak zein partidak.

## Amaitu da Kopa Alcortarentzat, eta Gaurvek Olaizagan jokatuko du azken partida

Joan den domekan itzuli ziren eskubaloi partidak Elgoibarrera. Alcorta F.G. senior gizonetzkoen taldeak Romoren aurka jokatu zuen Euskal Kopako partida, IMH kiroldegian. Eguraldi eguzkitsua egin arren, badirudi zaleak lehia gosez daudela, eta bete egin zen kiroldegia. Aforoa 154 laguntara mugatua zuten koronabirusagatik eta ikusleei temperatura hartu zieten sarreran. Alcortak 24-27 galdu zuen partida eta honezbestez amaitu da Kopa eurentzat, jokatutako hiru partidetatik bi galdu eta bat berdindu baitituzte. Senior emakumezkoen taldeak, Gaurvek, joan den zapatuan jokatu zuen Kopako lehen partida Zarautzen, eta zapatu honetan jokatuko du bigarrena, eta azken partida Olaizagan, 19:30ean. Ermuko Errotaberri izango dute aurkari.



**LANA.....**  
**Eskaintzak**

Astehenetik-barikura, 7:30etatik 9:00etara, bi ume zaintzeko pertsona bat behar dugu.  
☎ 653 745 992

Umeak eskolara eramateko pertsona baten bila nabil. ☎ 650 840 620

**Eskaerak**

Astehenetik ostiralera umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko prest nago. Euskalduna naiz. Ordu-tegi malgua daukat eta berehala hasteko prest nago. ☎ 680 568 659

Adinekoak zaintzen egingo nuke lan. Berehala lanean hasteko prest. ☎ 610 668 183

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 632 229 972

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka.  
☎ 635 802 382

Umeak goizez ikastolara eramateko prest nago. ☎ 688 654 289

Umeak zaintzeko edo zerbitzari lanak egiteko prest nago. Esperientzia daukat eta euskaraz badakit. ☎ 642 186 958

Lehen Hezkuntzako Magisteritza Gradua egiten ari den neska elgoibartarra edozein adineko haurrak zaintzeko edo 12 urtera arteko haurrei partikularrak emateko prest.  
☎ 646 789 096

Adinekoak eta umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan. ☎ 657 155 078

Adinekoak zaintzeko eta garbiketarako egiteko prest nago. Etxeko langile moduan, orduka, gauzez... Erreferentziak ditut, eta papelak legez.  
☎ 631 121 148

Adinekoak eta umeak zaintzeko, garbiketa lanak egin... lan bila nabil. Euskalduna naiz eta adinekoak zaintzeko titulazioa daukat.  
☎ 626 490 986

Erizain laguntzailea naiz eta adinekoak zaintzen egingo nuke lan.  
☎ 643 410 742

Adinekoak zaintzeko prest nago. Orduka, ospitalean, gauzez edo etxeko langile moduan.  
☎ 631 465 603

Adinekoak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest nago. Orduka edo etxeko langile moduan.  
☎ 632 452 026

Adinekoak zaintzeko prest nago. Euskalduna naiz.  
☎ 617 571 210

Adinekoak edo umeak zaintzen edo beste edozertan egingo nuke lan.  
☎ 632 893 515



**LAGUNAK**  
colchoneria textil hogar





- Zetazko Jacquard biskosa
- 300 gr Zeta
- 300 gr Lihoa
- Latex Naturala Comfort
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Cool Spring 900 suspentsioa
- 5 atsedeen gune
- 1000 Microcoils 3D Spacer
- Latex Naturala Comfort
- 300 gr Mohair Artile
- 300gr zeta
- Zetazko Jacquard biskosa

**Proba ezazu koltxoi natural batean lo egitea zer den eta bizi ezazu esperientzia lasaigarri bat. Zatoz probatzera gure dendara!**

**San Roke kalea, 20 - Elgoibar - 943 744 457 - 685 756 978 - [www.textillagunak.com](http://www.textillagunak.com)**



**administradores**

Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Finanzas  
Euzkoako Finantza Administrazioen Erakunde Komunitarioa



**ROSA Ma PINTADO**

*Etxaldean Administrazio-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**[rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)**


**Eraikitzaileak pisuak saldu aurretik egindako elementu komunak aldaketak baliozkoak diren jakin nahi nuke. Aldaketa hori ez dago jasota erregistro-dokumentazioan.**

Batzuetan, sustatzaileak edo eraikitzaileak, pisuak saldu aurretik eta eratze-titulua eman ondoren, komunitateko elementu komunetan aldaketak egiten ditu, eta horiek aldatu egiten dute eraketa-tituluan horiei buruz egiten den deskribapena.

Kasu horietan, egoera faktikoak titulu eratzailan ezarritakoa baino balio handiagoa du, eta sustatzaileak elementu komunetan egindako aldaketa horiek guztiz baliozkoak dira.

Atikoen terrazak ixtea izaten da kasurik ohikoena, eta, horrela, Eraikuntza Tituluan jasotakoa baino azalera handiagoa ematen zaie. Kasu horietan aldaketa legezkoa izango da Jabetza Horizontalaren Legearen ikuspuntutik.

**Gomendioa. Aldaketa horiek hirigintzako araudia bete beharko dute; izan ere, bete ezean, edozein jabe aipatu ahal izango du dagokion organismoetan.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**

San Bartolome, 2





Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeke bulegora, edo [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara bidali.



Zorionak, **Ga-razi**, irailaren 16an 9 urte bete zenituelako. Muxu potolo bat, familiakoen partez.



Astelehenean 9 urte bete zenituen, **Luken!** Zorionak! Gizontxo bat eginda zaude da-goeneko. Muxu bat familiako guz-tion partez.



Zorionak, **Hai-zea!** 13 urte iada! Muxu handi bat familiako guz-tion partez.



Zorionak, **Luken**, astelehenean 9 urte beteko dituz-lako. Segi beti be-zain jator. Patxo handi bat etxe-koen eta lagun-en partez.



Zorionak, **Hai-zea**, abuztuaren 20an 7 urte bete zenituelako. Segi horren alai! Fa-miliakoen par-tez, muxu handi bat.



Ostirala iritsi da, iritsi da ostirala... eta gainera, zure eguna, **Sara!** 3 urte! Muxu bat etxekoan, eta be-reziki, ahizpa Ele-neren partez.



Zorionak, **Paul!** Igandean 3 urte! Oso ondo ospatu! Patxo potolo bat etxekoan eta bere-ziki, Peru eta Mar-tinen partez.



Zorionak **Aratz!** Gaur 6 urte bete dituzu! Patxo handi bat etxeko guztien partez, batez ere, arreba Jare eta Ibai eta Lier lehengusuen partez.



Zorionak, **Ihart** eta **Maule**, 11 eta 4 urte bete dituzuelako. Etxekoan partez, muxu handi bana.



Zorionak, **Jone** eta **Maitane!** Oso ondo ospatu zuen 6. eta 2. urtebetetze egunak, bihurriak. Gurasoen partez!

Erretratu bakarrekogurra: 4'50€. Argazki bikoitza: 7€.

Hirukoitza: 9€. Hiru lagunetik gorako taldeak: 15€

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarrekogurra: 3'50€. Argazki bikoitza: 6€. Hirukoitza: 8€.

Hiru lagunetik gorako taldeak: 12€

EIBARKO HIZKUNTZA ESCOLA OFICIALA  
ESKOLA OFICIAL DE IDIOMAS DE EIBAR

HEZKUNTZA ESPARRUA  
Ingenieritza eskolan eta Jaizkibel eraikinean  
Otaola Hiribidea, 29  
943 899 275

Ikasi hizkuntzak eta eskuratu ziurtagiri ofizialak

Hizkuntzak:  
Alemana, Euskara, Frantsesa eta Ingelesa

Mailak:  
A1 A2 B1 B2.1 B2.2 C1

Talde eskaintza, ordutegiak eta matrikula on-line egiteko (IKASGUNEA plataformaren bitartez):

[www.eoieibarheo.hezkuntza.net](http://www.eoieibarheo.hezkuntza.net)

Ikasturte osoaren prezioa: 72.36 euro

Gela desplazatuak Azkoitian eta Arrasaten

## SAMSUNG QE55Q65TAU TELEBISTA

QLED Errealitatea erakusten dizun telebista



- A energia-mota ● 4K prozesatzailea
- kolore-bolumena % 100-ean ● Led duala
- Ahots-laguntzaileak ● 3 HDMI
- 2 USB 2.0 (Grabatzailera) ● Bluetooth audioa
- Dolby Digital Plus

MILARBIRE

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - [bire@milar.es](mailto:bire@milar.es)

Dendako prezioak. Produktuak agortu arte.

## 22 MARTITZENA

**15:30 eta 18:00** Gurasoentzako formazioa: 'Pantailen erabilera egokia'. Lehen saioa gaztelaniaz eta bigarrena euskaraz. Saiok aurrez aurrekoak izatea aurreikusi dute baina egoeraren arabera aldaketak izan daitezke.

## 23 EGUAZTENA

**19:00 eta 20:00** Aurkezpena: Uxue Alberdi idazleak 'Dendaostekoak' liburua aurkeztuko du Aita Agirre kulturguneko areto nagusian. Izena emana dutenak barririk joan ahal izango dira.

## 24 EGUENA

**15:30 eta 18:00** Gurasoentzako formazioa: 'Nerabeen gatazketan bidelagun'. Lehen saioa gaztelaniaz eta bigarrena euskaraz. Nerea Mendizabalbiga tuemon elkarteko hezitzailea izango den hizlaria. Saiok aurrez aurrekoak izatea aurreikusi dute baina egoeraren arabera aldaketak izan daitezke.

**20:30** Antzerkia: Taupada antzerki taldeak 'Bainuetxea' emanaldia eskainiko du Aita Agirre kultur kafean.

### Iñaki Agirre zinemaldia (Herriko Antzokian)

'La camarista'  
18 barikua 21:30

'Under the skin'  
19 zapatua: 19:00  
/ 22:15 (VOS)  
20 domeka 19:00  
21 astelehena  
21:30

'Laburbira'  
22 martitzena  
21:30 (Doan)

Tu me manques  
(Zinegoak)  
23 eguaztena  
21:30 (Doan)

'El huevo del dinosaurio'  
24 eguena 21:30  
25 barikua 21:30

### Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

#### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

18 BARIKUA	19 ZAPATUA	20 DOMEKA	21 ASTELEHENA	22 MARTITZENA	23 EGUAZTENA	24 EGUENA	25 BARIKUA
Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez *Yudego	Egunez *Ibañez	Egunez Garitaonandia	Egunez Arriola	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Fernandez
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Arriola	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Yudego	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko Enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984



#### VI. URTEURRENA

### Juanito Loiola Bergaretxe

2014ko irailaren 14an hil zen, 69 urte zituela.

**Beti egongo zara gure bihotzean. Asko maite zaitugu.**

Etxeko sendiak





## *Iñaki Salegi Albizu*

2020ko irailaren 15ean hil zen, 56 urte zituela.

***Gure ondotik joan zara,  
baina betiko izango zaitugu  
gure bihotzetan.***

Zure kuadrilla



## *Lucia Zabala Etxano*

2020ko abuztuaren 9an hil zen, 94 urte zituela

*Abuztuaren hasiera zen,  
agur Lucia laguna,  
uda giroa genuen, baina  
tristea esna eguna,  
baina gurekin jarraitzen duzu,  
argituz iluntasuna,  
hemen dago, bai, gure artean,  
beti zure oihartzuna,  
zuek gogoan, eraikitzeko  
geroa, etorkizuna!*



VII. URTEURRENA

## *Manolo Gil Zengotita*

2013ko irailaren 17an hil zen, 85 urte zituela.  
Haren oroimenez VII. urteurreneko meza izango da, domekan,  
irailaren 20an, 11:30ean Elgoibarko Bartolome Deunaren  
eliz-parrokian. Joango zaretanoi alde zurretik eskerrak.

***Ez zaitugu inoiz ahaztuko,  
ez zaitugu inoiz galduko,  
gure bihotz barrenean,  
eramango zaitugu betiko.***

Familiakoak



# GERTU

Gestora de Cooperativas

## Iriondo eraikina

Pedro Muguruza, 2, ELGOIBAR



Eraikitzen:

**B**ANTTON BILBAO  
GRUPO



- Elgoibarko erdigunean.
- 10 etxebizitza, 3 logelakoak. Logela guztiek kanpora ematen dute.
- Obra hasiera: 2020. urtearen amaiera.

Informazio gehiago

📞 943 458 731 - ✉ info@gertugestora.com - www.gertugestora.com